**ANIMALIA BIZIAK ETA HILAK BILTZEKO ZERBITZUA EMATEKO LANKIDETZA ARAUTZEKO HITZARMEN ADMINISTRATIBOA**

Eibarren, 2023ko otsailaren 23an

**BATZARTURIK**

Alde batetik, JOSE LUIS MAIZTEGUI ONAINDIA Jauna, adinez Nagusia, Zaldibarko herritarra, 72.348.730-A nortasun agiri nazional zenbakiduna, eta helburu hauetarako behean agertzen den ordezkatuaren helbidean egoitza izanik.

Eta, beste alde batetik, IOSU ARRAIZ ARAMBURU Jauna, adinez Nagusia, Elgoibarko herritarra, 44.344.404-J nortasun agiri nazional zenbakiduna, eta helburu hauetarako behean agertzen den ordezkatuaren helbidean egoitza izanik.

**PARTE HARTZEN DUTE**

JOSÉ LUIS MAIZTEGI ONAINDIA JAUNA, ZALDIBAR ANTEIGLESIAKO UDALAREN ordezkaria (helbidea: Zaldibar, 48250; Diputazio plaza, 1; IFK: P4810800E), bertako alkate-udalburua den aldetik, eta Udalbatzak 2022ko azaroaren 24an hartutako erabakiaren arabera akordio hau sinatzeko ahalmena duena.

IOSU ARRAIZ ARAMBURU jaunak, DEBABARRENAKO ESKUALDEKO MANKOMUNITATEAREN izenean (helbidea: Eibar, 20600, Egigurentarren 2, behea, eta IFK: G-20.079703), Mankomunitatearen presidente izanik, erabaki hau sinatzeko ahalmena du, 2022ko urriaren 26 datan bildutako Batzar Orokorraren erabakia betez.

**CONVENIO ADMINISTRATIVO PARA REGULAR LA COLABORACIÓN EN LA PRESTACIÓN DEL SERVICIO DE RECOGIDA DE ANIMALES (VIVOS Y MUERTOS)**

En Eibar, a 23 de febrero de 2023

**REUNIDOS**

De una parte, D. JOSÉ LUIS MAIZTEGI ONAINDIA, mayor de edad, vecino de Zaldibar, con documento nacional de identidad número 72.348.730-A, y con domicilio a estos efectos en el domicilio del representado, más abajo recogido.

Y, de otra parte, D. IOSU ARRAIZ ARAMBURU, mayor de edad, vecino de Elgoibar, con documento nacional de identidad número 44.344.404-J, y con domicilio a estos efectos en el domicilio del representado, más abajo recogido.

**INTERVIENEN**

D. JOSÉ LUIS MAIZTEGI ONAINDIA en representación del AYUNTAMIENTO DE LA ANTEIGLESIA DE ZALDIBAR, con domicilio en Zaldibar (48250), Plaza Diputación, 1, y CIF número P4810800E, como Alcalde-Presidente de la misma, facultado para suscribir este acuerdo en virtud de acuerdo de Pleno de fecha 24 de noviembre de 2022

D. IOSU ARRAIZ ARAMBURU, en representación de la MANCOMUNIDAD COMARCAL DE DEBABARRENA, con domicilio en Eibar (20600), Egigurentarren 2, bajo, y CIF número G-20.079703, como Presidente de la misma, facultado para suscribir este acuerdo en virtud de acuerdo de la Junta General de fecha 26 de octubre de 2022.

Alderdi biek hitzarmen hau formalizatzeko gaitasun juridikoa aitortu diote elkarri, eta, bakoitzak bestearen ordezkaritza onartuta, bien adostasunez,

Las partes se reconocen mutuamente la capacidad jurídica para la formalización del presente convenio y aceptándose recíprocamente las representaciones a cuyo tenor actúan, de común acuerdo,

**HONAKO HAU ADIERAZI DUTE**

**MANIFIESTAN**

I.- Euskadiko Toki Erakundeei buruzko apirilaren 7ko 2/2016 Legearen 17.1.6 artikuluak udal eskumen gisa jasotzen du "etxeko animalien eta arriskutsuak izan daitezkeen animalien antolamendua eta kudeaketa".

I.- El artículo 17.1.6 de la Ley 2/2016, de 7 de abril, de Instituciones Locales de Euskadi, recoge como competencia municipal: la "Ordenación y gestión en materia de animales de compañía y potencialmente peligrosos".

II.- Zaldibarko Udalak animaliak biltzeko zerbitzua ematen jarraitu behar du eta jarraitu nahi du, eta inguruko udal erakundeekin lankidetzan aritu nahi du horretarako, ez baitu baliabide propiorik zerbitzu hori zuzenean emateko, eta baterako prestazioak baliabideak optimizatzea eta kostuak murriztea ahalbidetzen duela deritzo.
Ildo horretan, Debabarrena Eskualdeko Mankomunitateak badauzka aipatu zerbitzua emateko egokiak diren azpiegitura publikoak, baliabide teknikoak eta langile kualifikatuak; Zaldibarreko udalerriak horiek guztiak erabiltzeko aukera izango luke, kudeaketa-gomendioari buruzko akordio baten bidez. Mankomunitatea prest legoke horrelako akordio bat onartzeko, indarrean dagoen administrazio-kontratua, zerbitzu hori emateko sinatutakoa, aldameneko udalerrientzako zerbitzu osagarri batean sartuta dagoelako.
Hitzarmen administratibo gisa eratu den kudeaketa-gomendio horren bidez, Zaldibarko Udalak Mallabia, Eibar eta Ermua udalerri mugakideekin batera jaso nahi du zerbitzua, horren kalitatea eta prezioa hobetzeko, eremu handiagoko kontratazio baten bidez.

II.- El Ayuntamiento de Zaldibar debe y desea seguir prestando el servicio de recogida de animales, y desea colaborar con entidades municipales del entorno para ello, ya que carece de recursos propios para su prestación directa, y entiende que la prestación conjunta permite optimizar sus recursos y minorar costes.
En este sentido, la Mancomunidad Comarcal de Debabarrena dispone de infraestructuras públicas, medios técnicos y personal cualificado, adecuados para la prestación de este servicio, al que podría acceder el municipio de Zaldibar, mediante un acuerdo de encomienda de gestión, que la Mancomunidad estaría en disposición de aceptar, toda vez que el actual contrato administrativo suscrito para la prestación de este servicio, figura incluido en un servicio adicional para municipios colindantes.
Mediante esta encomienda de gestión, que se articula en un convenio administrativo, el ayuntamiento de Zaldibar pretende recibir la prestación de este servicio junto con los municipios limítrofes de Mallabia, Eibar y Ermua, a fin de mejorar la calidad del propio servicio y el precio, mediante una contratación de un ámbito mayor.

Horrek kostua merkatuko luke, bilketa zentroa bertako animalientzat ere erabiltzea ahalbidetuko luke, eta mugakidetasunaren ondoriozko arazoa argituko luke, auzo batzuk Eibar, Ermua eta Mallabiarekin erabat lotuta baitaude.

III.- Bestalde, Euskadiko Toki Erakundeei buruzko Legearen 94. artikuluak tokiko zerbitzu publikoak kudeatzeko moduak arautzen ditu, eta aurreikusten du zuzenean kudeatu daitezkeela, erakundearen beraren bidez edo erakunde edo sozietate instrumentalen bidez. Halaber, zeharka kudeatu ahal izango dira, indarreko legerian aurreikusitako kontratu eta lankidetza modalitateen bidez, eta, bereziki, unean-unean aplikatzekoa den kontratuen legerian aurreikusitakoen bidez.

IV.- Debabarrena Eskualdeko Mankomunitateak, izaera publikoko toki-erakundea den aldetik, eskualde horretako hainbat udalerri biltzen ditu (horietako batzuk Zaldibarrekin mugakide ditu: Eibar, Ermua eta Mallabia), eta osatzen duten udalerrien hainbat eskumen ditu eta kudeatzen ditu, besteak beste, hiri-hondakin solidoak biltzeko, garraiatzeko eta errausteko zerbitzuak eta hondakin solido ez-organikoak tratatzeko zerbitzuak kudeatu, antolatu eta ematen ditu, baita bide-garbiketa ere.

V.- Debarrena Eskualdeko Mankomunitatearen estatutuetako 3. artikuluak honela dio: “Mankomunitate honek, nortasun juridikoa eta gaitasun osoa duenez. Bere helburuak betetzeko, bertan sartzen diren udalerrietako udal-mugarteei dagokien lurralde-eremuan legez aitortutako eskumenak erabiliz, beste erakunde publiko batzuekin egin ditzakeen hitzarmenei kalterik egin gabe.”

Ello abarataría su coste, permitiría el uso del centro de recogida también para sus animales, y clarificaría el problema derivado de la colindancia, ya que hay barrios totalmente entrelazados con Eibar, Ermua y Mallabia.

III.- Por su parte, el artículo 94 de la Ley de Instituciones Locales de Euskadi regula las formas de gestión de los servicios públicos locales, previendo que se pueden gestionar “directamente, a través de la propia entidad, o mediante entidades o sociedades instrumentales. También podrán gestionarse indirectamente por medio de las modalidades contractuales y de colaboración previstas en la legislación vigente y, especialmente, en la legislación de contratos que sea aplicable en cada momento”.

IV.- La Mancomunidad Comarcal de Debabarrena, como Entidad Local de carácter público que es, que integra a diversos municipios de dicha comarca (colindantes varios de ellos con Zaldibar: Eibar, Ermua y Mallabia), ostenta y gestiona diversas competencias de los municipios que la integran, entre ellas, gestiona, organiza y presta, en forma asociada, los servicios de recogida, transporte e incineración de residuos sólidos urbanos y tratamiento de residuos sólidos inorgánicos, limpieza viaria y perrera de los municipios que lo integran.

V.- El artículo 3 de los Estatutos de la Mancomunidad Comarcal de Debabarrena dice: “Esta Mancomunidad, como, tiene personalidad jurídica y plena capacidad para el cumplimiento de sus fines, ejerciendo las competencias reconocidas legalmente en el ámbito territorial que se corresponde con el de los términos municipales de los Municipios que en ella se integran, sin perjuicio de los convenios que pueda establecer con otras entidades públicas.”

VI.- Bere eskumenak gauzatzeko, Debabarrena Eskualdeko Mankomunitateak honako zerbitzu hauek ditu kontratatuta: animalia biziak, txakurrak eta katuak, biltzeko eta Debabarrena Eskualdeko animaliak biltzeko eta ondo egoteko Debabarrena Eskualdeko zentroan mantentzeko zerbitzua; aipatutako hiriguneetan usoak harrapatzeko zerbitzua; Debabarrena Eskualdeko udalerrietan hildako animaliak –txakurrak, katuak, usoak, arratoiak, ardiak eta abar– bide publikoetatik biltzeko zerbitzua; eta katuak harrapatzeko eta esterilizatzeko zerbitzua HAA ("harrapatu, antzutu eta askatu") prozedura erabiliz. Zerbitzu horiek guztiak ROBERTO SOLOGAISTUA CENDOYA jaunari kontratatu zitzaizkion 2022ko martxoaren 14an sinatutako administrazio-kontratuaren bidez (10/21-D456_00001).

VI.- Para el ejercicio de sus competencias, la Mancomunidad Comarcal de Debabarrena tiene contratado el servicio de recogida y posterior mantenimiento en el centro de recogida y de bien estar animal Comarcal de Debabarrena de los animales vivos, perros y gatos, la captura de palomas en los referidos núcleos urbanos y la recogida en los municipios de la Comarca de Debabarrena de animales muertos, esto es perros, gatos, palomas, ratas, ovejas, etc., de las vías públicas de los municipios de la Comarca, la captura y esterilización de gatos siguiendo el procedimiento CES, con D. ROBERTO SOLOGAISTUA CENDOYA (10/21-D456_00001), en virtud de un contrato administrativo suscrito con fecha, 14 de marzo de 2022.

Eta, Zaldibarko Udalarekin aldez aurretik horrela hitz egin denez, Mankomunitateak, kontratazio horren baldintza agirietan, zerbitzua mugakide diren udalerriei ematea aurreikusi du; izan ere, gai hori animaliak biltzeko eta edukitzeko zerbitzua emateagatiko Tasak Arautzeko Ordenantzan sartu da (2. artikulua), 2021eko azaroaren 24ko Batzar Orokorraren erabakia betez (2022ko otsailaren 2ko BAOn argitaratu zen erabakia).

Y, por haberlo tratado así previamente con el Ayuntamiento de Zaldibar, la Mancomunidad había previsto, en los Pliegos de esta contratación, la prestación del servicio a los municipios colindantes, y esta cuestión se ha incluido en su Ordenanza Reguladora de Tasas por la prestación del servicio de recogida y tenencia de animales (artículo 2), en virtud de acuerdo de su Junta General de 24 de noviembre de 2021, publicada en el BOB de 2 de febrero de 2022.

VII.- Horretarako, Zaldibarko Udalak hitzarmen hau sinatzea proposatzen du, zerbitzu hau eman diezaioten: animalia biziak, txakurrak eta katuak biltzeko eta, ondoren, Debabarrena Eskualdeko biltzeko eta animaliak ondo izateko zentroan mantentzeko zerbitzua, Zaldibarko udalerrian bide publikoetatik usoak harrapatzea eta Zaldibarren hildako animaliak jasotzea, hau da, txakurrak, katuak, usoak, arratoiak, ardiak eta abar. Mankomunitateak dagoeneko lizitazioaren bidez esleitu duen kontratuan jasotzen den bezala, eta kontratatuta dagoen

VII.- A tal fin, al Ayuntamiento de Zaldibar propone suscribir el presente convenio, para que le sea prestado el antedicho servicio, de recogida y posterior mantenimiento en el centro de recogida y de bien estar animal Comarcal de Debabarrena de los animales vivos, perros y gatos, la captura de palomas en el término municipal de Zaldibar y la recogida en Zaldibar de animales muertos, esto es perros, gatos, palomas, ratas, ovejas, etc., de las vías públicas, en el marco del contrato ya licitado por dicha Mancomunidad, y en las condiciones en que se ha

baldintzetan, honela kostua merkatuz eta baliabide publikoen hobeto erabiltzea lortuz.

contratado, logrando con ello un abaratamiento y una mayor eficiencia de los recursos públicos.

VIII.- Bi administrazio publikok sinatutako administrazio arteko hitzarmen baten aurrean gaude, eta horren barruan sartzen da beste administrazio publiko, organismo publiko edo zuzenbide publikoko lotutako edo menpeko erakunde baten baliabideak, bitartekoak, zerbitzuak edo baliabideak, eskumen propioak baliatzeko, Sektore Publikoaren Araubide Juridikoaren urriaren 1eko 40/2015 Legearen 11. artikuluaren babesean, 47.2.a) artikuluaren arabera. Honako hau dio artikulu horrek:
*"1. Administrazio-organoen edo zuzenbide publikoko erakundeen eskumeneko jarduera material edo teknikoak administrazio bereko edo beste bateko zuzenbide publikoko beste organo edo erakunde batzuen esku utzi ahal izango dira, baldin eta haien eskumenen artean jarduera horiek badaude, eraginkortasun-arrazoiengatik edo jarduera horiek gauzatzeko baliabide tekniko egokirik ez badago."*

*Sektore Publikoko Kontratuen Legeari lotutako legerian araututako kontratuen berezko prestazioak ez dira izango kudeaketa gomendioen xede.*

*Kudeatzeko gomendioak ez dakar ez eskumenaren titulartasuna ez eskumen horretaz baliatzeko funtsezko elementuak lagatzea; horrelakoetan, kudeatzeko gomendioa eman duen organoaren edo erakundearen ardura izango da gomendioan emandako jarduera material zehatzari oinarria emango dioten edo hura barne hartuko duten egintza edo erabaki juridiko guztiak hartzea.*
*Nolanahi ere, gomendioa jaso duen entitate edo organoa kudeaketa-gomendioa egikaritu bitartean eskuratu ahal dituen datu pertsonalen tratamenduaren arduraduna izango da, eta datu*

VIII.- Nos hallamos ante un convenio interadministrativo, firmado entre dos administraciones públicas, que incluye la utilización de medios, servicios y recursos de otra administración pública, organismo público o entidad de derecho público vinculado o dependiente, para el ejercicio de competencias propias, según artículo 47.2.a), al amparo del artículo 11 de la Ley 40/2015, de 1 de octubre, de Régimen Jurídico del Sector Público, que reza:
*"1. La realización de actividades de carácter material o técnico de la competencia de los órganos administrativos o de las Entidades de Derecho Público podrá ser encomendada a otros órganos o Entidades de Derecho Público de la misma o de distinta Administración, siempre que entre sus competencias estén esas actividades, por razones de eficacia o cuando no se posean los medios técnicos idóneos para su desempeño.*
*Las encomiendas de gestión no podrán tener por objeto las prestaciones propias de los contratos regulados en la legislación de la Ley de Contratos del Sector Público.*
*La encomienda de gestión no supone cesión de la titularidad de la competencia ni de los elementos sustantivos de su ejercicio, siendo responsabilidad del órgano o Entidad encomendante dictar cuantos actos o resoluciones de carácter jurídico den soporte o en los que se integre la concreta actividad material objeto de encomienda.*

*En todo caso, la Entidad u órgano encomendado tendrá la condición de encargado del tratamiento de los datos de carácter personal a los que pudiera tener acceso en ejecución de la encomienda de gestión,*

*pertsonalen babeserako araudian xedatuta dagoena aplikatuko zaio".*

Aipatutako araudiaren arabera, eta 40/2015 Legearen 3. artikuluan ezarritako printzipio orokorrak aplikatuz, eraginkortasun arrazoiak direla medio, bidezkotzat jotzen da Debabarrena Eskualdeko Mankomunitatearekin bere azpiegiturak eta baliabideak erabiltzea ahalbidetuko duen kudeaketa-gomendioa onartzea, tokiko eskumeneko zerbitzu publikoa Mankomunitateko udalerrien mugakide den Zaldibarko udal-mugartean emateko.

40/2015 Legearen 48.3 artikuluak jasotzen duen bezala, gomendioaren bidez hobetuko litzateke kudeaketa publikoaren efizientzia, baliabide eta zerbitzu publikoak batera erabiltzea errazagoa izango litzateke, onura publikoko jarduerak egiteko eta aurrekontu-egonkortasunari eta finantza-iraunkortasunari buruzko legeria betetzeko lagungarria izateaz gain.

Azaldutakoa dela eta, 40/2015 Legearen 11. artikuluan aipatzen diren gomendioetarako legez ezarritako baldintzak eta aginduak betetzen direla jotzen da; gomendioa administrazioarteko hitzarmen honen bidez eratuko da, eta BOEn, GAOn eta BAOn argitaratuko da, alderdiek adostu eta gero.

Bestalde, 48.4 eta 5. artikuluetan esaten den bezala, Zaldibarko Udalak badauka aurrekontu-partida, hitzarmen honetatik eratorritako konpromisoak ordaintzeko, eta, beraz, hitzarmena indarrean dagoen bitartean bere gain hartutakoak finantzatzeko ahalmena du.

Hain zuzen ere, hitzarmen honen I. eranskinean aipatzen diren konpromisoak dira, udalak Mankomunitateari ordainduko dion kuotari lotutakoak; bat datoz zerbitzua emateko gastuekin, Mankomunitatearen instalazioak erabiltzeko

*siéndole de aplicación lo dispuesto en la normativa de protección de datos de carácter personal."*

Conforme a la normativa citada, y en aplicación de los principios generales regulados en el Art. 3 de la citada Ley 40/2015, por razones de eficacia, se considera la pertinencia de aprobar una encomienda de gestión a la Mancomunidad Comarcal de Debabarrena, que permita la utilización conjunta de infraestructuras de la Mancomunidad y de recursos de ésta para prestar un servicio público de competencia local, en el término municipal de Zaldibar, colindante con municipios de la Mancomunidad.

Tal y como recoge el artículo 48.3 de la Ley 40/2015, mediante la encomienda, mejoraría la eficiencia de la gestión pública, se facilitaría la utilización conjunta de medios y servicios públicos y se contribuiría a la realización de actividades de utilidad pública y al cumplimiento de la legislación de estabilidad presupuestaria y sostenibilidad financiera.

Por lo expuesto, se entienden cumplidas las condiciones y preceptos legales propios de las Encomiendas del Art. 11 de la Ley 40/2015, que se articulará mediante el presente convenio interadministrativo, que será objeto de publicación en el BOE, BOG y BOB, una vez sea acordado por las partes.

Por otra parte, tal y como dice el artículo 48.4 y 5, el Ayuntamiento de Zaldibar cuenta con partida presupuestaria para sufragar los compromisos derivados del presente convenio, por lo que tiene capacidad para financiar los asumidos durante la vigencia del convenio.

Dichos compromisos son los indicados en el Anexo I a este convenio, referidos a la cuota que el ayuntamiento se compromete a abonar a la Mancomunidad, que se corresponden con los gastos propios de la prestación del servicio, con el canon por la cesión de uso de las instalaciones de la

aukeragatik ordaindu beharreko kanonarekin eta zerbitzuari egoztekoak diren administrazio gastuekin.

VIII.- Azkenik, betetzen dira hitzarmenek, Sektore Publikoaren Araubide Juridikoari buruzko urriaren 1eko 40/2015 Legearen 49. artikuluari jarraikiz, jaso behar dituzten gutxieneko baldintzak, hain zuzen:

a) Hitzarmena sinatzen duten subjektuak eta alderdi bakoitzak duen gaitasun juridikoa.
b) Administrazio publikoaren, hari lotutako edo haren mendeko organismo publikoen eta zuzenbide publikoko erakundeen edo unibertsitate publikoen jardunaren oinarri den eskumena.
c) Hitzarmenaren xedea eta subjektu bakoitzak hura betetzeko egin beharreko jarduerak, eta, hala badagokio, lortutako emaitzen titulartasuna.
d) Aldeetako bakoitzak bere gain hartutako betebehar eta konpromiso ekonomikoak, halakorik balego, urtekoen araberako denbora-banaketa adieraziz eta dagokion aurrekontuari zehazki egotziz, aurrekontu-legerian aurreikusitakoaren arabera.
e) Aldeetako bakoitzak bere gain hartutako betebeharrak eta konpromisoak bete ezean aplikatu beharreko ondorioak, eta, hala badagokio, ez-betetzearen ondoriozko kalte-ordain posiblea zehazteko irizpideak.
f) Hitzarmena betetzearen eta sinatzaileek hartutako konpromisoen jarraipena, zaintza eta kontrola egiteko mekanismoak. Mekanismo horrek hitzarmenen inguruan sor daitezkeen interpretazio- eta betetze-arazoak konponduko ditu.
g) Hitzarmena aldatzeko araubidea. Esanbidezko erregulaziorik ez badago, hitzarmenaren edukia aldatzeko, sinatzaileek aho batez erabaki beharko dute.

Mancomunidad y con los gastos de administración a este servicio imputables.

VIII.- Por último, se cumplen los requisitos que según el artículo 49 de la Ley 40/2015, de 1 de octubre, del régimen jurídico del sector público, los convenios deberán incluir que, al menos, son las siguientes:

a) Sujetos que suscriben el convenio y la capacidad jurídica con que actúa cada una de las partes.
b) La competencia en la que se fundamenta la actuación de la Administración Pública, de los organismos públicos y las entidades de derecho público vinculados o dependientes de ella o de las Universidades públicas.
c) Objeto del convenio y actuaciones a realizar por cada sujeto para su cumplimiento, indicando, en su caso, la titularidad de los resultados obtenidos.
d) Obligaciones y compromisos económicos asumidos por cada una de las partes, si los hubiera, indicando su distribución temporal por anualidades y su imputación concreta al presupuesto correspondiente de acuerdo con lo previsto en la legislación presupuestaria.
e) Consecuencias aplicables en caso de incumplimiento de las obligaciones y compromisos asumidos por cada una de las partes y, en su caso, los criterios para determinar la posible indemnización por el incumplimiento.
f) Mecanismos de seguimiento, vigilancia y control de la ejecución del convenio y de los compromisos adquiridos por los firmantes. Este mecanismo resolverá los problemas de interpretación y cumplimiento que puedan plantearse respecto de los convenios.
g) El régimen de modificación del convenio. A falta de regulación expresa la modificación del contenido del convenio requerirá acuerdo unánime de los firmantes.

h) Hitzarmenaren indarraldia, honako arau hauek kontuan hartuta:

1. Hitzarmenek iraupen jakin bat izan beharko dute, gehienez ere lau urtekoa, arauz epe luzeagoa aurreikusten denean izan ezik.

2. Aurreko paragrafoan aurreikusitako epea amaitu aurreko edozein unetan, hitzarmenaren sinatzaileek aho batez erabaki ahal izango dute hitzarmena luzatzea, gehienez beste lau urtez, edo azkentzea".

Aplikatu beharreko araudia betez eta aurretiaz azaldutakoa kontuan hartuta, jarraian azaltzen diren klausulen bidez arautuko hitzarmen hau sinatzen dute alderdi biek

**KLAUSULAK**

**Lehena.- Xedea.**

Zaldibarko Udalak Debabarrena Eskualdeko Mankomunitateari agintzen dio honako zerbitzu hauen kudeaketa: animalia biziak –txakurrak eta katuak– biltzea eta Debabarrena Eskualdeko animalien ongizate zentroan mantentzea; Zaldibarko hiriguneetan usoak harrapatzea; Zaldibarko bide publikoetatik animalia hilak (txakurrak, katuak, usoak, arratoiak, ardiak eta abar) biltzea; eta katuak HAA prozedurari jarraikiz harrapatu eta antzutzea. Izan ere, Mankomunitate honek zerbitzua Zaldibarko udalerrian emango du, horretarako dituen azpiegituretan ematen dituen zerbitzuen markoan, adskribatutako baliabide teknikoak eta giza baliabideak erabiliz, erreferentziako kontratuan aurreikusitako baldintzetan, bertan aipatzen diren zerbitzuak mugakide diren udalerrietan emateko.

h) Plazo de vigencia del convenio teniendo en cuenta las siguientes reglas:

1.º Los convenios deberán tener una duración determinada, que no podrá ser superior a cuatro años, salvo que normativamente se prevea un plazo superior.

2.º En cualquier momento antes de la finalización del plazo previsto en el apartado anterior, los firmantes del convenio podrán acordar unánimemente su prórroga por un periodo de hasta cuatro años adicionales o su extinción.”

Dando cumplimiento a la normativa de aplicación y, teniendo en cuenta los antecedentes expuestos, ambas partes suscriben el presente Convenio, que se regula por las siguientes

**CLÁUSULAS**

**Primera.- Objeto.**

El Ayuntamiento de Zaldibar encomienda a la Mancomunidad Comarcal de Debabarrena la gestión del servicio de recogida y posterior mantenimiento en el centro de recogida y de bien estar animal Comarcal de Debabarrena de los animales vivos, perros y gatos, la captura de palomas en los núcleos urbanos de Zaldibar, y la recogida en Zaldibar de animales muertos, esto es perros, gatos, palomas, ratas, ovejas, etc., de las vías públicas de Zaldibar, así como la captura y esterilización de gatos siguiendo el procedimiento CES, de forma que esta Mancomunidad prestará este servicio en el municipio de Zaldibar, en el marco de los servicios que viene prestando en las infraestructuras que, a estos efectos, dispone, con los medios técnicos y profesionales adscritos y en las condiciones previstas en el contrato de referencia, para los servicios que en el mismo figuran, para su prestación en municipios colindantes.

Debabarrena Eskualdeko Mankomunitateak kudeaketa-gomendioa hitzarmen honetan ezarritako baldintzetan onartzeko erabakia hartzen du.

**Bigarrena.- Zaldibarko Udalaren betebeharrak.**

Zaldibarko Udalak prestazio horrek ekar diezaiokeen kostua ordaindu beharko dio Debabarrena Eskualdeko Mankomunitateari. Horretarako, Debabarrena Eskualdeko Mankomunitateak hilean behingo kuotak kobratuko dizkio Zaldibarko Udalari, hitzarmenaren eranskinean zehaztutakoak: zerbitzua kudeatzeko gastuak, egozteko moduko gastuak eta instalazioen erabilera lagatzeari dagokion kanona. Urteko zenbateko finkoa eta aldagarria hitzarmen onen lehenengo azalpenean agertzen da.

Zaldibarko Udalak legez aurreikusitako epean ordaindu beharko ditu fakturak.

Zaldibarko Udalak adierazten du ezagutzen dituela Mankomunitateak zerbitzua emateko sinatu zuen eta indarrean dagoen administrazio-kontratuaren edukia; kontratuak esanbidez aipatzen ditu zerbitzua Mankomunitatearen mugakide diren udalerrietan emateko baldintzak; kontratuaren iraupena bi urtekoa da, 2022ko martxoaren 14tik aurrera zenbatzen hasita, eta bi aldiz urtebetez luzatzeko aukera aurreikusi da.

Zaldibarko Udalak legez ezarritako epean ordaindu beharko ditu fakturak.

Zaldibarko Udalak Mankomunitateak udalerrian erroldatutako animaliei buruz eskatzen duen informazioa eman beharko dio Mankomunitateari, baita zerbitzua emateko beharrezkoa izan daitekeen beste edozein informazio ere.

Udalak konpromisoa hartzen du Debabarrena Eskualdeko Mankomunitatearekin lankidetzan aritzeko ingurumenari eta ekonomia zirkularrari buruzko helburuak betetzeko, erakunde biek helburu horiek bete nahi dituztelako.

La Mancomunidad Comarcal de Debabarrena acuerda aceptar dicha encomienda en las condiciones que se regulan en el presente convenio.

**Segunda.- Obligaciones del Ayuntamiento de Zaldibar.**

El Ayuntamiento de Zaldibar deberá pagar a la Mancomunidad Comarcal de Debabarrena el coste que esta prestación le pueda suponer. A tal fin, la Mancomunidad le girará al ayuntamiento de Zaldibar cuotas mensuales que se especifican en el anexo al convenio, referidas a los gastos de gestión del servicio, gastos imputables y canon por la cesión de uso de las instalaciones. Su importe anual fijo y variable figura cuantificado en el expositivo primero del presente convenio.

El ayuntamiento de Zaldibar deberá abonar las cuotas mensuales en el plazo legalmente previsto.

El ayuntamiento de Zaldibar declara conocer los términos del actual contrato administrativo suscrito por la Mancomunidad, para la prestación de este servicio, que, expresamente, prevé las condiciones de su prestación en municipios colindantes a los de la Mancomunidad y que su duración es de dos años a contar desde el día 14 de marzo de 2022, siendo susceptible de dos prórrogas anuales.

El Ayuntamiento de Zaldibar deberá abonar las facturas en el plazo legalmente previsto.

El Ayuntamiento de Zaldibar deberá facilitar a la Mancomunidad la información que ésta requiera sobre los animales censados en el municipio, así como cualquier otra información que pueda ser necesaria para la prestación del servicio.

El ayuntamiento se compromete a colaborar con la Mancomunidad Comarcal de Debabarrena en el cumplimiento de los objetivos medioambientales y de economía circular que persiguen ambas entidades.

Mankomunitateak urtean behin onartuko du zerbitzua emateagatik ordaindu behar den kuota eta horren zenbatekoa zerbitzuaren benetako kostuaren arabera berrikusi ahal izango da, kontzeptuka; berrikuspena behar bezala justifikatu beharko da.

**Hirugarrena.- Debabarrena Eskualdeko Mankomunitatearen betebeharrak.**

Debabarrena Eskualdeko Mankomunitateak lankidetzan aritzeko borondate ona azaltzen du eta, beraz, konpromisoa hartzen du honako zerbitzu hauek kudeatzeko eta ematea bermatzeko: Zaldibarren jasotako animalia biziak, txakurrak eta katuak, biltzea eta Debabarrena Eskualdeko animalien ongizate zentroan mantentzea; Zaldibarko hiriguneetan usoak harrapatzea; Zaldibarko bide publikoetatik animalia hilak (txakurrak, katuak, usoak, arratoiak, ardiak eta abar) biltzea; eta katuak HAA prozedurari jarraikiz harrapatu eta antzutzea.

Zerbitzuak emateko baldintzak 2022ko martxoaren 14ko kontratuan azaldutakoak dira, Mankomunitatearen mugakide diren udalerriei dagokienez. Jarduera horrek ezin izango du urritu Mankomunitateak berak jasotzen duen zerbitzua, horren baldintzak aldatu gabe mantentzen baitira, kontratatu ziren moduan. Mankomunitateak bere instalazioak eta eskualdeko txakurtegia erabiltzeko baimena emango du, Zaldibarko Udalari zerbitzua emateko.

Mankomunitatea ez da zerbitzuaren kontratistari egotz dakizkiokeen eta gerta daitezkeen ez-betetzeen erantzule izango Zaldibarko Udalaren aurrean; hala ere, aipatu kontratua zorrotz betetzeaz arduratuko da.

**Laugarrena.- Jardueren Jarraipen eta Koordinazio Batzordea.**

La Mancomunidad aprobará anualmente la cuota por la prestación de este servicio, cuyo importe podrá ser revisado en función del coste efectivo del servicio, por conceptos, lo cual debe justificarse suficientemente.

**Tercera.- Obligaciones de la Mancomunidad Comarcal de Debabarrena.**

La Mancomunidad Comarcal de Debabarrena muestra su mejor voluntad de colaborar y, por eso, se compromete a gestionar y velar para que se preste el servicio de recogida y posterior mantenimiento en el centro de recogida y de bien estar animal Comarcal de Debabarrena, de los animales vivos, perros y gatos recogidos en Zaldibar, la captura de palomas en los ámbitos urbanos de Zaldibar, y la recogida en las vías públicas de Zaldibar de animales muertos, esto es, perros, gatos, palomas, ratas, ovejas, etc., de las vías públicas de Zaldibar, y la captura y esterilización de gatos en Zaldibar siguiendo el procedimiento CES.

Las condiciones en las que se prestará este servicio, son las que figuran en el contrato de 14 de marzo de 2022, para municipios colindantes con los de la Mancomunidad. Dicha actividad no podrá menoscabar el servicio que recibe la propia Mancomunidad, cuyas condiciones se mantienen inalteradas en los términos que fueron contratadas. La Mancomunidad permitirá el uso de sus instalaciones, de perrera comarcal, para la prestación del servicio al ayuntamiento de Zaldibar.

La Mancomunidad no responderá frente al ayuntamiento de Zaldibar, de los potenciales incumplimientos que sean imputables al contratista de este servicio; si bien, velará por el cumplimiento estricto de dicho contrato.

**Cuarta.- Comisión de Seguimiento y Coordinación de las Actuaciones.**

Hitzarmen honen Jarraipen Batzordea eratuko da. Batzorde hori lau ordezkarik osatuko dute: Debabarrena Eskualdeko Mankomunitatearen bi ordezkarik eta Zaldibarko Udalaren bi ordezkarik. Ordezkari horiek hitzarmena sinatzen duten alderdiek izendatuko dituzte.

Eginkizun hauek izango ditu:

a) Hitzarmen honetan aurreikusitako jarduketak behar bezala gauzatzen direla egiaztatzeko jarraipena egitea, elkarren arteko informazioa ahalbidetzeko eta bakoitzaren konpromisoak behar bezala betetzeko irizpideak eta moduak zehaztuz, eta alde bakoitzari dagozkion izapideak arintzen saiatuz.

b) Interpretazio- eta betetze-arazoak ebaztea, eta batak besteari informazioa emateko eta dagozkion konpromisoak behar bezala betetzeko irizpideak eta moduak zehaztea.

c) Kasu bakoitzean behar diren izapideak, azkar egitea eragozten duten oztopoak, kentzeko laguntza ematea.

Hitzarmena indarrean dagoen bitartean, Batzorde hori normalean urtean behin bilduko da, edo alderdietako batek proposatuta.

Batzordea jarduketak ondo joan daitezen behar den guztietan bilduko da, eta Presidentetza Debabarrena Eskualdeko Mankomunitateari egokituko zaio; Idazkaritza, aldiz, Zaldibarko Udalaren esku utziko da.

Debabarrena Eskualdeko Mankomunitateak hitzarmena indarrean dagoen bitartean gertatzen diren gertaera esanguratsuenen berri emango dio Batzordeari.

Se constituirá una Comisión de Seguimiento del presente Convenio que estará formada por un total de cuatro representantes, dos representantes de la Mancomunidad Comarcal de Debabarrena y dos representantes del Ayuntamiento de Zaldibar, que serán designados, respectivamente, por las partes firmantes del presente Convenio.

Sus funciones serán las siguientes:

a) Llevar a cabo el seguimiento de la normal ejecución de las actuaciones previstas en el presente Convenio, determinando los criterios y modos para posibilitar la mutua información y adecuado cumplimiento de los compromisos respectivos, tratando de agilizar el cumplimiento de los trámites que correspondan a cada una de las partes.

b) Resolución de problemas de interpretación y cumplimiento que puedan plantearse, determinando los criterios y modos para posibilitar la mutua información y adecuado cumplimiento de los compromisos respectivos

c) Facilitar la remoción de los obstáculos que entorpezcan la celeridad de los trámites requeridos en cada caso.

Durante la vigencia del Convenio, esta Comisión se reunirá con carácter ordinario cada año o a propuesta de cualquiera de las partes.

La Comisión se reunirá siempre que lo requiera la buena marcha de las actuaciones, correspondiendo la Presidencia de la misma a la Mancomunidad Comarcal de Debabarrena y a la Secretaría al ayuntamiento de Zaldibar.

La Mancomunidad Comarcal de Debabarrena dará cuenta a la Comisión de los acontecimientos más significativos que se produzcan durante la vigencia del convenio.

Bilerak egiteko eta erabakiak hartzeko quoruma kideen gehiengoa izango da.

Hitzarmenean jarraipen-batzordearentzat berariaz aurreikusten ez den guztian, SPAJ 1eko 40/2015 Legean araututako kide anitzeko organoen araubidea aplikatuko da.

Los quórum de reunión y adopción de acuerdos serán los de mayoría de sus miembros.

En lo no previsto expresamente en el convenio para la comisión de seguimiento, le será aplicable el régimen de los órganos colegiados regulado en Ley 40/2015, de 1 de octubre, de Régimen Jurídico del Sector Público.

**Bosgarrena.- Hitzarmenaren araubidea eta interpretazioa.**

Hitzarmen hau administrazioen artekoa da, Sektore Publikoaren Araubide Juridikoaren urriaren 1eko 40/2015 Legearen 47.2.a) artikuluaren arabera interpretatu eta garatzeko, tresna horiei aplikatu beharreko ordenamendu juridiko-administratiboa bete beharko da.

Jarraipen Batzordeari dagokio hitzarmen hau interpretatzean edo gauzatzean sor daitezkeen arazoak konpontzea, aurreko klausulan esandakoaren arabera. Hori posible ez bada, Administrazioarekiko Auzietarako Jurisdikzioaren ardura izango da, dagozkion lege organiko, eskumen eta erritualekin bat etorriz.

**Quinta.- Régimen e interpretación del Convenio.**

El presente Convenio es de tipo interadministrativo, de los contemplados en el art. 47.2.a) de la Ley 40/2015, de 1 de octubre, de Régimen Jurídico del Sector Público, rigiéndose en su interpretación y desarrollo por el ordenamiento jurídico administrativo aplicable a estos instrumentos.

La resolución de los problemas de interpretación que pueda plantear el presente Convenio o su ejecución corresponderá a la Comisión de Seguimiento, según lo referido en la Cláusula anterior; si no fuera posible, corresponderá su conocimiento al Orden Jurisdiccional Contencioso-Administrativo, de conformidad con la ley orgánica, competencial y rituaria correspondientes.

**Seigarrena.- Hitzarmenaren ondorioak eta iraupena.**

Hitzarmenak ez ditu parte-hartzaileak behartuko eskumenei uko egitera edo haiek aldatzera. Hitzarmenaren ondorioz hartzen dituzten konpromisoei datxezkien erantzukizunak bakarrik hartzen dituzte beren gain.

Hitzarmena behar bezala formalizatuko da, eta 2023ko urtarrilaren 1etik aurrera izango ditu ondorioak. Indarraldia 2024ko martxoaren 13an amaituko da.

Azaldutakoa alde batera utzi gabe eta Sektore Publikoaren Araubide Juridikoaren urriaren 1eko 40/2015 Legearen 49.h).2 artikuluan esanbidez ezarritakoari jarraikiz, gehieneko epea amaitu baino

**Sexta.- Efectos y duración del Convenio.**

El Convenio no supondrá renuncia ni alteración de las competencias de las partes intervinientes, que asumen únicamente responsabilidades inherentes a los compromisos que contraen en virtud del mismo.

El Convenio, debidamente formalizado, surtirá efectos y obligará a las partes intervinientes a partir del día 1 de enero de 2023, finalizando su vigencia el día 13 de marzo de 2024.

Sin perjuicio de lo expuesto y al amparo de lo preceptuado expresamente en el ordinal 2º del art. 49.h) de la Ley 40/2015, de 1 de octubre, de Régimen Jurídico del Sector Público, en cualquier momento

lehenago, hitzarmenaren sinatzaileek aho batez erabaki ahal izango dute hitzarmena beste urte batez luzatzea, gehienez ere bi aldiz.

Ezarritako epea igarota, hitzarmen hau iraungi egingo da, berriro egiteko aukera galarazi gabe, lankidetza hori hitzarmena sinatzea eragin duten helburuak betetzeko lagungarria izan dela ondorioztatzen bada.

**Zazpigarrena.- Hitzarmena azkentzea.**
Hitzarmen hau honako arrazoi hauengatik iraungiko da:

a) Hitzarmenaren indarraldia edo, hala badagokio, adostutako luzapenen epeak amaitzea.

b) Sinatzaile guztiek aho batez hala erabakitzea.
c) Sinatzaileetako batek bere gain hartutako betebeharrak eta konpromisoak ez betetzea.

Aldeetako batek bere gain hartutako betebehar eta konpromisoak betetzen ez baditu, besteak eskubidea izango du zorrotz bete dadin edo hitzarmena suntsiaraz dadin eskatzeko.
Kasu horretan, alderdietako edozeinek errekerimendu bat jakinarazi ahal izango dio ez-betetzea egin duen beste alderdiari, epe jakin batean bete ditzan bete gabekotzat jotzen diren betebeharrak edo konpromisoak. Errekerimendu hori laugarren klausulan aipatutako Batzordeari ere jakinaraziko zaio, hitzarmenaren jarraipena, zaintza eta kontrola egiteaz arduratzen baita.

Errekerimenduan adierazitako epea igarotakoan ez-betetzeak bere horretan jarraitzen badu, igorri zuen alderdiak beste alderdi sinatzaileari jakinaraziko dio hitzarmena suntsiarazteko arrazoia, eta hitzarmena suntsitutzat joko da. Hitzarmena arrazoi horrengatik suntsiarazten

antes de la finalización del plazo máximo, los firmantes del convenio podrán acordar unánimemente su prórroga anual, hasta un máximo de dos prórrogas.
Transcurrido dicho período, se extinguirá el presente convenio, sin perjuicio de su posible reedición, si esta forma de colaboración hubiera permitido lograr los objetivos que la han motivado.

**Séptima.- Extinción del Convenio.**
El presente Convenio se extinguirá por las siguientes causas:

a) El transcurso del plazo de vigencia del Convenio, o, en su caso, de las prórrogas que se hubieran acordado.
b) El acuerdo unánime de todos los firmantes.
c) El incumplimiento de las obligaciones y compromisos asumidos por parte de alguno de los firmantes.

El incumplimiento por alguna de las partes de las obligaciones y compromisos asumidos facultará a la otra, o para exigir su estricto cumplimiento, o para solicitar la resolución del Convenio.
En este caso, cualquiera de las partes podrá notificar a la otra incumplidora un requerimiento para que cumpla en un determinado plazo con las obligaciones o compromisos que se consideran incumplidos. Este requerimiento será igualmente comunicado a la Comisión referida en la Cláusula cuarta, en su condición de responsable del seguimiento, vigilancia y control de la ejecución del Convenio.
Si trascurrido el plazo indicado en el requerimiento persistiera el incumplimiento, la parte que lo dirigió notificará a la otra parte firmante la concurrencia de la causa de resolución y se entenderá resuelto el Convenio. La resolución del Convenio por esta causa podrá conllevar la

bada, egotz lekizkiokeen ez-betetzeak eragindako kalteen kalte-ordaina jaso ahal izango da.

d) Hitzarmenaren deuseztasuna deklaratzen duen erabaki judiziala.

Hitzarmena suntsiarazten bada, alderdiek zehaztuko dute zer baldintza bete behar diren gauzatzen ari diren zerbitzuak eta zerbitzuak amaitzeko eta ordaintzeko, Zaldibarko Udalak hitzarmenaren xede diren zerbitzuak beste modu batez ematea ebatzita izan arte, animaliei eta osasun publikoari kalterik eragin gabe.

indemnización de los perjuicios causados por los incumplimientos que le fueran imputables.

d) Por decisión judicial declaratoria de la nulidad del Convenio.

En caso de resolución, las partes determinarán las condiciones para la finalización y pago de los servicios en ejecución, y de los servicios cuya prestación sea necesaria hasta que el Ayuntamiento de Zaldibar tenga resuelta la prestación de los servicios objeto de convenio por otro medio, sin causar perjuicios a los animales ni a la salud pública.

**Zortzigarrena.- Herri Kontuen Euskal Epaitegira bidaltzea.**

Sektore Publikoaren Araubide Juridikoaren urriaren 1eko 40/2015 Legearen (SPAJL) 53.1 artikuluan agindutakoarekin bat etorriz, hitzarmen hau elektronikoki igorri beharko zaio Herri Kontuen Euskal Epaitegiari, sinatu eta hurrengo hiru hilabeteetan.

Halaber, SPAJLren 53.2 artikuluan xedatutakoaren arabera, honako hauek ere jakinaraziko dira: epeen aldaketak, luzapenak edo aldaketak, hartutako konpromiso ekonomikoen zenbatekoen aldaketak eta hitzarmenaren azkentzea.

**Octava.- Remisión al Tribunal Vasco de Cuentas Públicas.**

De conformidad con lo preceptuado en art. 53.1 de la Ley 40/2015 de 1 de octubre, de Régimen Jurídico del Sector Público (LRJSP), dentro de los tres meses siguientes a la suscripción del presente Convenio, deberá remitirse el mismo electrónicamente al Tribunal Vasco de Cuentas Públicas.

Igualmente se comunicarán las modificaciones, prórrogas o variaciones de plazos, alteración de los importes de los compromisos económicos asumidos y la extinción del propio convenio, según lo dispuesto en art. 53.2 LRJSP.

**Bederatzigarrena.- Jurisdikzioa eta eskumena.**

Hitzarmen honen izaera publiko eta administratiboa ikusirik, alderdi biek onartzen dute hitzarmen honi buruzko kontuak erabakitzeko eskumena Bilboko Administrazioarekiko Auzien Epaitegien esku dagoela, beti ere aldez aurretik Udalak administrazio bidean erabakitzeko eskumenari kalte egin barik.

**Novena.- Jurisdicción y competencia.**

Dada la naturaleza pública y administrativa de este convenio, ambas partes reconocen la competencia de los Juzgados de lo Contencioso-Administrativo de Bilbao para resolver cualquier cuestión que derive del presente convenio, sin perjuicio del derecho previo del Ayuntamiento de resolver en vía administrativa lo que proceda.

Eta horrekin guztiarekin ados daudenez gero, agiri hau sinatzen dute idazpuruan adierazitako tokian eta egunean.

Y para la debida constancia de todo lo acordado, firman este convenio en el lugar y fecha arriba indicado.

JOSÉ LUIS MAIZTEGI ONAINDIA Jn.

Zaldibar Elizateko Alkatea

Firmado digitalmente por72248730A JOSE LUIS MAIZTEGUI (R: P4810800E)
DN: cn=72248730A JOSE LUIS MAIZTEGUI (R: P4810800E) gn=JOSE LUIS c=ES o=AYUNTAMIENTO DE ZALDIBAR ou=Ordezkari ziurtagiria - Certificado de representante
Motivo:ALCALDE
Ubicaci· n:
Fecha:2023-02-23 12:19+01:00

D. IOSU ARRAIZ ARAMBURU

Debabarrena Eskualdeko Mankomunitateko Presidentea

44344404J JOSU ARRAIZ (R: G20079703)

Firmado digitalmente por 44344404J JOSU ARRAIZ (R: G20079703)
Fecha: 2023.02.23 15:03:26 +01'00'

Nire aurrean / Ante mí

IDAZKARI-KONTUHARTZAILEA

LA SECRETARIA - INTERVENTORA

Inmaculada Echeandia Viñuela

INMACULADA ECHEANDIA VI¤UELA - 14250438Y

Firmado digitalmente porINMACULADA ECHEANDIA VI¤UELA - 14250438Y
DN: cn=INMACULADA ECHEANDIA VI¤UELA - 14250438Y gn=INMACULADA c=ES o=Ayuntamiento de Zaldibar - Zaldibarko Udala ou=CERTIFICADO ELECTRONICO DE EMPLEADO PUBLICO
Motivo:Secretaria-Interventora
Ubicaci· n:
Fecha:2023-02-23 12:21+01:00

Nire aurrean / Ante mí

IDAZKARI-KONTUHARTZAILEA

LA SECRETARIA - INTERVENTORA

Raquel Olaizola Cortina

RAQUEL OLAIZOLA CORTINA - 30557262Z

Firmado digitalmente por RAQUEL OLAIZOLA CORTINA - 30557262Z
Fecha: 2023.02.23 15:04:54 +01'00'

DEBABARRENA
Eskualdeko Mankomunitatea
Mancomunidad Comarcal

Zaldibar
Elizateko
Udala

## I. ERANSKINA

### TXAKURTEGI ZERBITZUAK ZALDIBARKO UDALAREKIN DUEN HITZARMENEAN KONTUAN HARTU BEHARREKO GASTUAK

Kanpoko enpresa esleipendunaren zerbitzu-gastuak (BEZa barne)

- Eskualdeko txakurtegi zerbitzua eta uso-bilketa — 3.630 euro katua
- Katua harrapatu, esterilizatu eta askatzeko unitatea — 125 euro katua

Debabarrena Eskualdeko Mankomunitatearen instalazioak erabiltzeko zerbitzuaren gastuak

- Amortizazio ibilgetua — 307 euro urteko
- Instalazioen mantentze-lanen gastu arrunta — 567 euro urteko

Administrazio-gastuak

- Debabarrena Eskualdeko Mankomunitatearen administrazio-gastuak txakur-kudeaketagatik — 1.582 euro urteko

Zaldibarko Udalera bidali beharreko kuotak honela berrikusiko dira:

- Kanpoko enpresa esleipendunaren zerbitzu-gastuak: Esleipen berri bakoitzarekin.
- Debabarrea Eskualdeko Mankomunitateko instalazioen erabilera gastuak eta administrazio gastuak
  Urtean behin.

## ANEXO I

### GASTOS A CONSIDERAR EN EL CONVENIO DEL SERVICIO DE PERRERA CON EL AYUNTAMIENTO DE ZALDIBAR

Gastos servicio empresa externa adjudicataria (IVA incluido)

- Servicio de perrera comarcal y recogida de palomas — 3.630 euros/año
- Unidad de captura, esterilización y suelta gato — 125 euros/gato

Gastos servicio de uso de las instalaciones de la Mancomunidad Comarcal de Debabarrena

- Amortización inmovilizado — 307 euros/año
- Gasto corriente mantenimiento de instalaciones — 567 euros/año

Gastos administración

- Gastos administración Mancomunidad Comarcal de Debabarrena por gestión perrera — 1.582 euros/año

Las cuotas a girar al ayuntamiento de Zaldibar se revisarán:

- Gastos servicio de empresa externa adjudicataria: Con cada nueva adjudicación.
- Gastos servicio de uso de las instalaciones de la Mancomunidad Comarcal de Debabarrea y gastos de administración:
  De manera anual.